errigora

**MARTXOAK 4 - 24**

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

# Plateretik baratzera

EKO




Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

EKO




errigora.eus

# Gako nagusiak

***Plateretik baratzera*** leloa izango du 2021eko *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpainak. Hauxe da helarazi nahi dugun mezu nagusia: elikagaiak ekoizteko erak aldatzeko, alda dezagun kontsumitzeko modua. Ohiko esamoldea (*baratzetik platerera*) atzekoz aurrera jarrita, ohiko kontsumitzailearen ohiko eskemak hankaz gora jarri nahi ditugu. Izan ere, eserita itxaron ordez, aulkitik altxatu gabe egin dezakegu bidea elikadura-burujabetzara, pentsatzen dugunaren arabera janez. Platerak tokiko uztarekin betez. Eskala txikian ekoitzitako elikagaiak kontsumituz. Produktu agroekologikoen eskaintza handitu dadin, hauen eskaera indartuz.

Asmoa ez da, ordea, maila teorikoan geratzea; praktikan, ekoizpena eskaerara nola moldatzen den erakutsi nahi dugu. Batetik, kanpaina hau abiatu genuenetik, milaka kontsumitzaile arduratsuk bestelako hautuak eginez, **ekoizpenaren eremuan eman ditugun pausuak kontatuz**. Bestetik, kanpaina hau erronka gisa planteatuz: hainbat produkturen ekoizpenean muga handiak topatu ditugu, eta kanpaina honetan horien eskaera indartzen badugu, ekoizle eta lur-eremu berriekin mugak gainditzeko elkarlanak bideratzeko gai izango gara. Hau da gure lankide, auzokide edo lagunei ulertarazi behar dieguna: **gaurko kontsumoaren araberakoa izango da biharko ekoizpena**.

# Eskaintza

Kanpainaren eskema betikoa izango den arren, hainbat produktu berri eskainiko ditugu aurtengoan:

- Kardua (ekologikoa eta ez-ekologikoa).
- Zerba-penkaz eta borrajaz osatutako barazki-lotea (barazki-menestra ez-ekologikoaren hutsunea betetzera datorrena).
- Txitxirio ekologikoak.
- Eta, ekoizpen arazoengatik, iaz eskaini ezin izan genituen potxa ekologikoak.

Hala ere, stock-muga handiak ditugu hainbat produktutan:

- Potxetan, batez ere ekoizpen ekologikoan.

OHARRAK

- Txitxirio ekologikoetan.
- Barazki-menestran.
- Pikillo piperretan (kasu honetan, eguraldiaren eta bakterio baten eraginez, uzta negargarria izan delako are mugatuago gaude, batez ere ekoizpen ekologikoan).
- Eta zainzurien uzta nolakoa izango den ikusteko dago oraindik.

Baina, esan bezala, produktuon stocka amaitzea ez dugu arazo gisa ikusi behar, ekoizpen-mugak gainditzeko aukera gisa baizik. Honezkero lanean ari gara INTIArekin, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluarekin eta hainbat nekazari eta elaboratzailerekin, lehenago ere egin bezala, Errigoraren kontsumitzaileen bultzadaz ekoizpenaren eremuan pausuak emateko.

**OHARRAK**

**Enpeltre olioa** (Castillo de Ablitas): **19€** 5L | **Pikuak olioa** (La Casa del Aceite): **19€** 5L | **Arbekina olio ekologikoa** (Bardea, La Casa del Aceite): **32€** 5L | **Arroitz olio ekologikoa** (Enara, Biosasun: **33€** 5L | **Zainzuri ekologikoak** (El Escolar, Iturri, La Churta): **45€** 12x370ML | **Zainzuriak** (El Agricultor, El Escolar, Iturri): **43€** 12x425ML | **Pikillo piper ekologikoak** (Iturri): **37€** 12x250ML | **Pikillo piperrak** (El Agricultor, El Escolar): **34€** 12x425ML | **Orburu ekologikoak** (Ebrón): **77€** 12x720ML | **Orburuak** (María Jesús, Ebrón): **53€** 12x720ML | **Kardu ekologikoa** (La Churta): **29€** 12x720ML | **Kardua** (Ebrón): **21€** 12x720ML | **Barazki-menestra ekologikoa** (Ebrón): **65€** 12x720ML | **Barazki-sorta** (Ebrón): **23€** 12x720ML | **Potxa ekologikoak** (Almanaque): **43€** 12x720ML | **Potxak** (Almanaque): **35€** 12x720ML | **Tomate ekologikoa** (Enara, La Churta): **21€** 12x370ML | **Tomatea** (Pedro Luis): **19€** 12x370ML | **Krema ekologikoak** (Pedro Luis): **28€** 12x500ML | **Txitxirioak** (La Churta): **27€** 12x720ML | **Arroz ekologikoa** (El Alcaraván): **43€** 12x1KG | **Arroza** (El Alcaraván): **22€** 12x1KG | **Pasta ekologikoa** (Martinelli): **35€** 12x400GR



# Eskaerak

Hainbat produktutan ditugun mugak direla eta, ezinbestekoa izango da unean uneko stockaren kontrola eramatea. Beraz, aurten **ez da izango eskuorri bidez eskaerak egiteko aukerarik**. Izan ere, eskuorriak multzoka jasota ez genuke eskaeren hurrenkera kronologikoa ezagutzeko modurik.

Hortaz, aurten bi bide egongo dira eskaerak egiteko:
- **Online**, errigora.eus webgunean.
- Eta, sarean eskaerak egiteko gai ez direnentzat, **telefono bidez**, Hego Euskal Herritik +34 848 87 12 23 eta Ipar Euskar Herritik +33 532 09 35 45 telefono-zenbakira deituta.

Bi bide hauetatik aparte **eskaerak heltzen zaizkigunean garrantzi bizikoa izango da momentuan erregistratzea**. Bestela, agortutako produktuak eskatu dituztenek ez dituzte produktuok jasoko, eskaera egiterakoan oraindik agortu gabe egon zitezkeen arren.

# Ezohiko neurriak

COVID 19aren harira etorri diren eta etor daitezkeen neurri murriztaileen aurrean prest egon beharko genuke eta alternatiba egokiak eskaini beharko genituzke. Horregatik:
- Gure herri eta auzoetan bizitza soziala hain murriztuta dagoen honetan, ahal den neurrian **kanpaina kalera ateratzea proposatuko dugu**, ekimenen bidez garai ilun hauetan argi pixka bat jartzeko, beti ere beharrezko diren babes-neurriak hartuz. Tabernak zabalik dauden herrietan pintxo-poteak antola ditzakegu, tabernariei kanpainako produktuak doan eskainiz; dastaketak antola ditzakegu edo azoketan postutxo bat jar dezakegu.
- Tokiko komunikabideekin kanpaina lantzen saiatuko gara, ahoz ahokoa mugatuta dagoen honetan kanpainaren berri emateko.
- Egoerak okerrera egingo balu ere telefono bidezko eskaeren plantemenduak aurrez aurreko eskaerak galtzea ekidingo du.

## OHARRAK

errigora

# Egutegia

**Martxoak 4-24 • Eskaerak**
Ia hiru aste izango ditugu kanpaina egiteko eta eskaerak jasotzeko. Azken urteetan bezala, produktu guztiak —oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza eta pasta— aldi berean eskatuko dira. Online eskatzen dutenen kasuan zein telefono bidez eskatuta emaila emanez gero, ordainketa bi zatitan egiteko aukera izango da txartel bidez (erdia martxoan eta beste erdia apirilean).

**Apirilak 19-30 • Deskargak**
Iaz bezala, eskatu ez ezik, banatu ere dena batera egingo da. Gunearen arabera, ibilgailuaren neurriak eta ezaugarriak kontuan hartu beharko dira:




**Trailerra**
Edukiera: **33 palet (24.000kg)**
Neurriak: **13,60 metro**




**3 ardatzeko kamioia**
Edukiera: **21 palet (15.000kg)**
Neurriak: **8,40 metro**



**Plataformadun kamioia**
Edukiera: **21 palet (9.000kg)**
Neurriak: **8,40 metro**



**Kamioi txikia**
Edukiera: **8 palet (800kg)**
Neurriak: **4,20 metro**



**Furgoia**
Edukiera: **5 palet (1.600kg)**
Neurriak: **3,90 metro**

**Maiatzaren 7ra arte • Banaketa**
Deskarga egunetik maiatzaren 7ra arte luzatu daiteke banaketa. Edonola ere, esperientziak esaten digu ahal bezain azkarren egitea dela dela onena. Produktuak jasotzeko tarte luzeegiak ekidin eta egun eta ordutegi konkretua definitzea da gomendagarriena.

**Maiatzaren 14ra arte • Diru-sartzeak**
Eskuz jasotako dirua guztia maiatzaren 14rako sartuta egon beharko lizateke, egin beharreko konprobazio guztiak egin eta ekoizleei ordaindu ahal izateko. Ingresoak egitean web gunearen barne-atalean zehaztutako kontzeptuak erabili behar dira, konprobazio lanak asko errazten baitira horrela.

***OHARRAK***

***DESKARGA***

*GUNEA:*
*DATA:*

*GUNEA:*
*DATA:*

*GUNEA:*
*DATA:*

*GUNEA:*
*DATA:*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **MARTXOA** | | | | | | |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| **APIRILA** | | | | | | |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 1 | 2 |
| **MAIATZA** | | | | | | |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |